

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Suhiltzaileek 402 sutetan esku hartu dute 2017ko udan

*627 hektarea erre dira, azken hamarkadan batez beste erretakoak baino gutxiago, aurtengo udan ohi baino euri gutxiago egin duen arren*

Ostirala, 2017.eko urriak 20

Aurtengo udan, Nafarroako Suhiltzaileek 402 irteera egin dituzte baso-suteetan esku hartzeko; sute horien ondorioz, 627 hektarea erre dira. Nafarroako Gobernuaren udako prebentzio-kanpainak azken hamarkadako batezbestekoaren azpitik dauden kopuruak izan ditu, azken hamarkadan erre den laugarren azalera txikiena izan baita, euri gutxi egin duen arren.



Uztailaren 4an Undoze Lerdan piztutako sutea

Nafarroako Gobernuaren ustez, oso positiboa izan da kanpaina, bai erretako azalera txikia izan delako (2016an baino askoz ere txikiagoa, urte hartan Tafallan soilik 3.500 hektarea erre baitziren), bai Suhiltzaileen Zerbitzuak kasu gutxitan esku hartu behar izan duelako (beste urte batzuetan erregistratutako batezbestekoan baino kasu gutxiagotan). 2016 an, 4.610 hektarea erre ziren.

Horrela, Nafarroa osoan zehar dauden 12 suhiltzaile-parkeek guztira 402 kasutan esku hartu dute ekainaren 15etik irailaren 30era bitartean, suteak itzaltzeko; aurreko urtean, berriz, 516 kasutan esku hartu zuten. Erretako 627,78 hektareatik, azalaren % 34 abuztuan erre zen; hilabete horretan erre ziren hektarea gehien, eta orduan izan ziren esku-hartze gehienak (alegia, % 43).

Klimak, suteen fase guztietan erabakigarria den faktoreak, portaera irregularra izan du: oso hezea eta beroa izan da ekainean; beroa eta lehorra uztailean; beroa eta oso lehorra abuztuan; eta oso hotza eta lehorra irailean. Udaberrian batezbestekoa baino euri gutxiago egin du, eta tenperaturak ohi baino hiru gradu altuagoak izan dira ekainean; horrek guztiak areagotu egin du arriskua. Hain zuzen ere, zereal-uztaren garaian (lan horrek sute ugari eragin ohi ditu), ekainaren 22an hiru sute piztu ziren aldi berean, eta kanpainako esku-hartze nabarmenenak eragin zituzten: bi Iruñerrian, Galarren eta Arazurin, eta hirugarrena, berriz, Añorben. Galarrekoan 95 hektarea erre ziren; Arazurikoan, 54; eta Añorbekoan, 26. Hortaz, goi-tenperaturaren eraginez, 144,4 hektarea erre ziren, azken

urteotako ekaineko batezbestekoa baino azalera handiagoa.

Tuterako Suhiltzaileen Parkeak egin zituen esku-hartze gehien (76); ondoren, Kordobilako Parke Nagusiak (62 esku-hartze); eta, azkenik, Lizarrakoak (52).

### **Prebentzio-lanak**

Uda aurretik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren Departamentuak zenbait prebentzio-lan egin zituen. Arauei dagokienez, sinplifikatu egin zuten nekazaritza-lanetan sua erabiltzeko baimenak bideratzeko prozesua (era horretako baimenak beti murriztaileak dira), eta gomendioak eman zituen zereala biltzeko eta paketatze lanetan suteak saihesteko eta itzaltzeko neurriak ezartzeko, lan horietan ezbehar ugari gertatu ohi baitira.

Ekainaren 15etik irailaren 30era, Departamentuko 12 teknikariek eta basozaintzako langile guztiek (hots, 109 pertsona) zaintza-lan zehatzak egin zituzten suteak aurrez detektatzeko. Langile horiek laguntza handia eskaintzen diote Suteak Itzaltzeko Zerbitzuari, oso ondo ezagutzen dituztelako lurraldea eta bertako ingurumen-balioak eta toki-erakundeekiko harremana.

Langile horien guztien zuzendaritzarekin ondo koordinatuta, Ingurumeneko arduradunek Bulldozer motako makina astunak erabili zituzten, oso eraginkorrak baitira orografia egokia bada suebakiak egiteko edo suhiltzaileen ibilgailuentzako bideak irekitzeko.

Zeregin bakoitzaren arriskuak ebaluatzerakoan, sute-arriskua eta kontsulta meteorologikoa uztartzen dituzten tresna informatikoak erabiltzen dira. Aplikazio horiek oso erabilgarriak izaten dira, bai alerta-egoera aurreikusteko, bai landa-ingurunean erretako eremuak kudeatzeko. Tresnek simulagailuak dituzte, eta, haiei esker, sutea gertatzeko zer aukera dauden ikus daiteke; hori funtsezkoa da sutea itzaltzeko estrategia egokiena proposatzeko. Aplikazioak sutearen bilakaera irudikatzen du, denbora-tarte batean eta iragarpen meteorologikoa kontuan hartuta.

### **Hiru eginbide penal**

Foruzaingoaren Ingurumen Babeseko Brigadako agenteek zaintza-lanak egin dituzte sute eta erretzeetako 214 esku-hartzetan, eta ikerketa hasi dute 62 kasutan. Hirutan, eginbide penalei eman zaie hasiera, eta eginbide horiek dagozkion epaitegietara bidali dira. Hain zuzen ere, hauen berri eman da epaitegietan: uztailearen 16an Leringo lastategi batean piztutako sute bat; abuztuaren 2an Faltzeseko udal-mugartean piztutako baso-sutea (4 hektarea erreta); eta abuztuaren 20an Fontellaseko El Bocal auzoan izandako sutea (2,5 hektarea erreta). Hiru kasuetan, oraindik ere zabalik dago ikerketa.

Horretaz gain, Foruzaingoak kalteengatik 28 eginbideri eman die hasiera, eta 36 salaketa administratibo bideratu. 36 salaketa horietatik, 26tan adierazi da udan surik egin ezin den eremuetan egin zela sua, eta, hortaz, ez dela bete suaren erabilera arautzen duen foru-akindua.



Uztailearen 4an Arazurin piztutako sutearen irudia